

# berria



Asteartea, 2005eko urtarrilak 18

## Ikus-entzunezkoei maileguak emango dizkie Jaurlaritzak

### Aurten 15 milioi euro bideratuko ditu mailegu bidezko finantzaketarako

EDURNE BEGIRISTAIN - GASTEIZ

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ikus-entzunezko ekoizpena sustatzeko finantzaketa ildo berriak abiatuko ditu hemendik aurrera Eusko Jaurlaritzak. Bi finantzaketa ildo berri ezarri ditu: interes gabeko maileguak eta interes txikikoak. Finantzaketa berezi hori Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa pribatuek ekoiztutako ikus-entzunezko produkzioa diruz laguntzera bideratuko da, eta Eusko Jaurlaritzak urtero diruz hornituko du, atzo Miren Azkarate Kultura sailburuak jakitera eman zuenez.

Maileguen bitarteko diru laguntzak emateko hitzarmena atzo sinatu zuten Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailak, Kultura Sailak eta Luzaro finantza elkarteak, Lakuan. Finantzabide berri honen helburua da «ekoizpena, alorraren lehiakortasuna eta enplegua sustatzea», Azkaratek azaldu zuenez. Horrela, lehen finantzaketa deialdirako 1.870.310 euro bideratu ditu Jaurlaritzak. Interes gabeko itzuli beharreko maileguen atalaren barruan, Jaurlaritzak lau egitasmo diruz lagundu ditu: Aupa Etxebeste (340.690 euro); Locos por el sexo (507.860 euro); Muertos Comunes (469.450 euro) eta Frio sol de invierno (200.000 euro). Interes txikiko itzuli beharreko maileguei dagokienez, bi proiekturen alde egin du Lakuako gobernuak: Aupa Etxebeste-ri beste 259.310 euro bideratu dizkio, eta SuperTramps-i 93.000 euro. Kultura sailburuak atzo azaldu zuenez, interes gabeko maileguak film luzeak, laburrak, tv-movie-ak, dokumentalak eta animazioko filmak laguntzera zuzenduko dira. Bestalde, interes txikiko maileguek aurreko ataleko ekoizpenaz gainera, telebista saioak biltzen dituzte. Ikus-entzunezko ekoizpenaren sustapenerako finantzaketa ildo horiek Kultura Sailak diruz hornituko ditu urtero. Hala, 2004. urterako 9 milioi euro bideratu zituen, kontuan izaki lehen urtea zela eta urte zati bat baino ez zuela hartuko. Urte honetarako, berriz, 15 milioi euroko maileguak ematea aurreikusten du Jaurlaritzak.

#### **Ikus-entzunezkoen Liburu Zurian oinarrituta**

Finantzaketarako ildo berri horiek EAEko Ikus-entzunezkoen Liburu Zurian oinarrituta daude. Izan ere, 2003. urtean onartutako Liburu Zuriak lau xede biltzen ditu, Idoia Zenarruzabeitia Ogasun sailburuak gogorarazi zuenez, eta finantzaketa berriak xede horiek betetzera zuzenduko dira. Batetik, ikus-entzunezko alorraren egoeran diagnosia egitea eta etorkizuneko epekako estrategia zehaztea. Bigarrenik, erakunde desberdinek alorra suspertzeko ematen duten dirua eta garatzen dituzten laguntzak zehaztea. Bestetik, ikus-entzunezko erakundeen arteko batzordea eta clusterra eratzea aurreikusten da, eta, azkenik, epe ertainera ikus-entzunezko zerbitzu eta azpiegituren kudeaketarako elkarteak sortzea aurreikusten du Liburu Zuriak.